



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 8a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2005eko azaroaren 14ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua, Gobernuari itzul dakion.

Proiektu honen jatorria aurreko proiektuan dago, zeina onetsi ondoren 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legea izatera pasa baitzen. Parlamentu-talde honek harako proiektu hari buruzko iritzi negatiboa adierazia zuen, hain zuzen ere proiektua lehenagoko planen ildoari atxikitzen zitzaiolako, eta, aurretik ere osoko zuzenketak aurkezteko izan zituen arrazoien antzekoak erabiliz, eskatu zuen Nafarroako Gobernuari itzultzea, bai eta, geroago, kontrako botoa eman ere, hala batzordeko nola osoko bilkurako eztabaidetan. Azpiegituren planaren ereduak funtsean bera izaten segitzen du, eta oso aldaketa gutxi egin dira toki entitateek Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsa kapital transferentzien bitartez banatzeko erduan, zeinarekin gu ez baikaude ados oraingoan ere.

Ez aurreko proiektuan ez oraingoan ere, ez zaio heldu toki entitateen gaur egungo beharriari eta errealitateari hobeto egokitzen zaien eredu berri bat abiarazteari; hain zuzen ere, toki inbertsioen plangintza egiteko eta kapital-transferentzien funtsa banatzeko eredu baten gainekoari. Toki entitateak finantzatzeko eredu barne hartuko duen toki itun berri bati buruzko eztabaida egiteko dago oraindik. Eta oraindik ere aurrekontu-eskasia nabaritzen da, lehenagoko planetakoaren antzekoa. Oraingoan ere zuzkidurak aski ez dira toki azpiegituretako inbertsio beharrei erantzuteko, azpiegituren planetan ezarritako prozeduretatik kanpoko kofinantzaketa sistema duten beste arlo batzuetako (gizarte ongizatea, kultura, ingurumena) inbertsioekin lotutakoetan, eta toki entitateak behartzen ditu eskale gisa ibiltzera gobernuak eman nahi dituen dirulaguntzak eskuratu ahal izateko. Eredu berberak indarra izateak Konstituzioan jasotzen den toki autonomiaren printzipioaren kaltea dakar berriz ere, mantentzen duelako toki entitateen mendekotasuna Nafarroako Gobernuaren erabakiekiko.

Bestalde, ez zaigu iruditzen justifikatuta dagoen jokabide hau, 12/2004 Foru Legeak plan berezi baten prestaketa iragartzearena; hain zuzen ere, beste foru lege bat eginarazten duen plan berezi batena. Plan bereziaren edukia jadanik ezarrita dago 12/2004 foru lege horretan, bai eta diru-ekarpenak ere. Proiektu honek behin eta berriro joarazten du foru lege horretara. Legegintza-teknika asko hobetuko zatekeen baldin eta 12/2004 Foru Legeak zuzenean arautu izan balu plan berezia, horretarako beharrezkoak diren berriazko arau bakanak ezarri eta premiazkoa ez den geroagoko foru lege baten esku utzi ordez.

Bestetik, gure aburuz aukera bat alferrik galdu da, plan berezia erabiltzeko zenbait arrazoi direla eta eskualde beharstutzat edo garapen ekonomiko eta sozialari laguntzeko beharrian berezikotzat har daitezkeen Foru Komunitateko

eskualdeak definitzeko, hain zuzen ere laguntza-neurri bereziak jaso behar dituztenak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak proposatzen du aipaturiko foru lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

2. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua, Gobernuari itzul dakion proposatzen duena.

2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzko Foru Lege proiektu hau urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeko 5. artikuluan xedaturikoaren ondorioa da; izan ere, artikulua horrek ezarri zuen plan berezi bat eginen zela planean sartzen ziren obren finantzaketa osatzeko edo foru legean bertan ezarritako hautespen eta leheneste parametroen ondorioz planean sartzen ez ziren obrak finantzatzeko.

Aurrekaria izan zen Toki azpiegituren arloko 2004ko plan bereziari buruzko Foru Legea aztertuz gero, ikusiko dugu foru lege horrek zuzeneko erreferentzia gisa zuela, lehen artikuluan, lege horren ekintza bideratzea eskualde behartsutzat jotzen diren eta kasuko eranskinean zerrendatzen diren entitateetara.

Hala eta guztiz ere, 2006-2008 eperako plan bereziaren lege proiektuak ikuspegi hori galdu du eta, beraz, ez da bideratzen eskualde horiek beharrezkoa duten laguntza instituzional eta ekonomikoaren ildotik, parlamentu-talde honek hainbeste aldiz aldarrikaturiko ildotik, alegia.

Era berean, oraingo lege proiektu hau Nafarroako Gobernua toki administrazioaren alorrean egiten ari den politikaren jarraipena baino ez da; horrela, bada, garai batean 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko Foru Legearen aurkako jarrera harrarazi ziguten argudioek lehen-go indar bera izaten segitzen dute, koherentziaz.

Borondate politikoaren ezak gotorturiko arazo bat da toki entitateen maparen arrazionalizazioari eta "toki itun" bat egiteari dagokiona (toki itun horretan behingoz aitortu beharko litzateke toki administrazioak beste edozein administrazioen antzera duen eginkizuna, bere eskumenez eta autonomiaz hornitua).

Orain arte, gobernuak aurkezturiko lege proiektuak partzialak eta eskasak izan dira; horrela, bada, behin eta berriro urratu izan da "toki entitateen mapa" egiteko legezko agindua, eta gobernu behartua suertatzen da konstituzionaltasun zalan-tzagarriko ad hoc neurriak hartzera, urraketa horren ondoriozko arazoak konpontzen ahalegintzeko. Horren adibide argia da kontu-hartzaile eta idazkariena.

Nafarroako Gobernua legegintzaldia eta aukera bera ere alferrik galtzen ari da, eztabaida handi bati ekiteko; hain zuzen ere, gaur egungo gizartean toki administrazioek izan beharreko zeregina eta eskumenak argiro zehaztu beharko litzuzkeen eztabaidari. Erantzukizun horri bizkar ematen ari da. Ondorioz, aukera galtzen ari da, halaber, toki administrazioen autonomia bermatuko duen eta klientelismo politikorako edozein abagune ezabatuko duen finantza-askitasuna ahalbidetuz herritarren eskaerei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak banatzeko.

Horrenbestez, foru lege proiektu honek ez ditu benetan aintzat hartzen Nafarroako toki enteen beharrak; ez du bermatzen haiek finantza baliabide aski izatea; era berean, ez du bermatzen haiek ematen dituzten zerbitzuak eta egiten dituzten inbertsioak ordaintzeko moduko zuzkidura ekonomiko ekitatiborik. Foru administrazioa bere aurrekontu-egonkortasuna dela-eta harrokeriatan dabilen bitartean, toki entitateak zorpetuta ditugu.

Horrez gain, Plan bereziari buruzko Foru Lege proiektu honek eutsi egiten die finantzaketan arbitrariotasuna eragin lezaketzen zenbait jardunbideri. Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari proposatzen diogu erabaki dezan Nafarroako Gobernuari itzultzea 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzko foru lege proiektua.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

"14.176.900 euro eginen dute" dioen tokian, hauxe esan behar du: 30.000.000 euro eginen dute."

Zioak: Partaidetza Funttsaren kargurako ekarpenak gehitzea, toki entitateei behar beste baliabide emateko.

2. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Plan berezi honetarako ekarpenak... 14.176.900 euro eginen dute. Urte anitzekoak izanen dira, eta hauexek: 2006an, 7.088.450 euro, 2005 eta 2006ko ekitaldietarako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legean ezarritakoaren ondorioz. 2007 eta 2008ko ekitaldietan, urteko ekarpena izanen da 10.000.000 eurokoa, kasuan kasuko aurrekontualdian ezarriko direnak lehen aipaturako 12/2004 Foru Legean ezarritakoa alde batera.

Zioak: Hau bezalako lege berezi baten beharra onartzeak ez du esan nahi aurrekontu konpromiso baten beharra ulertu behar ez denik.

3. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“3. artikulua. Plan berezian sar daitezkeen inbertsioak.

Finantzatu ahalko diren inbertsioak presio handiko ur horniduraren plan zuzendarikoak, eskualde behartsuetako inbertsio berezien ingurukoak eta toki programazioaren obrak dira (sararik gabeko zolaterakoak izan ezik), hain zuzen eskatuta ere 2005-2008 eperako toki azpiegituren planean sartu ez zirenak”

Zioak: Eskualde behartsuei lehentasunezko tratua eman beharra.

4. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua berria gehitzeko zuzenketa (hurrengo artikuluen zenbakiak aldatuz).

Hau da proposatzen den testua:

“6. artikulua. Eskualde behartsuetako inbertsio berezien araubide ekonomiko-finantzarioa.

Eskualde behartsuetako inbertsio berezietarako ekarpenen araubidea toki entitateek parte hartzeko funtsaren kargura finantzatzeko da osotara”

Zioak: Eskualde behartsuei lehentasunezko tratua eman beharra.

5. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua berria gehitzeko zuzenketa (hurrengo artikuluen zenbakiak aldatuz).

Hau da proposatzen den testua:

“7. artikulua. Eskualde behartsuetako inbertsioak hautatzea.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eta Toki Administrazio Departamentuak lehentasunezko inbertsioei buruzko txosten bat eginen dute, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko, honek onets dezan”

Zioak: Eskualde behartsuei lehentasunezko tratua eman beharra.

6. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluan, Toki programazioaren inbertsioen araubide ekonomiko-finantzarioari buruzkoan, 1. idatz-zatian lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Plan berezi honetako laguntzak toki entitateek eskatu ahalko dituzte, baldin eta toki programazio obrak aurkeztu eta 2005-2008 eperako toki azpiegituren planean ezarritako ehunekoari aurre egiteko finantza arazoak badituzte”

Zioak: Toki entitate txiki batzuek zailtasunak dituzte benetan kasuan kasuko partaidetza ehuneko bere gain hartzeko, eta horren ondorioz ez dira aurkezten premiazkoak diren proiektuak edo ez dira gauzatzen onartutakoak. Horrek areagotu egiten du herri horietako ekipamendu gabeziaren egoera.

7. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. ...ekarpenen bolumen orokorrak ez du gaindituko, mota bakoitzerako, foru lege honetako 2. artikuluan ezarritako gutzizko ekarpenaren % 15,

erreserbak deskontatuta. Hilerrietan eta toki-bideetan inbertsioak egiteko, berriz, aipatu bolumen orokorrak ez du gaindituko aipatu kopuruaren % 10..., ezin izanen dira hautatu sareetako zolatzetara hautatuen % 5 baino gehiagoko ehunekoan gainditzen duten beste sareetako obra batzuk”

Zioak: Ezarritako ehunekoak ez daude justifikaturik eta badirudi ez direla aski premia handiko obretarako.

8. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko laugarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Toki enteek hitzarturiko obrei ez ekiteko justifikatzeko moduko inguruabarrak gerta daitezke, batez ere kontuan hartuta Nafarroako Gobernuaren aldetik ematen zaien tratua, finantza ezintasun egoeran uzten dituen.

9. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 4. idatz-zatiari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Obraren finantzazioan dagokien ehunekoari aurre egiteko ezintasun ekonomiko agerikoa izateagatik uko egin duten toki entitateak aurrekotik kanpo daude”

Zioak: Kasu batzuetan ukoak justifikazio agerikoa du toki entitatearen ezintasun ekonomikoa dela eta. Egitate objektibo horrek ez du ezertan ukitzen kasuko obraren premia.

10. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

“8. artikulua. Prozedura.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko du plan berezia, honek onets dezan, foru lege honetan ezarritako baldintzei begiratuz; une horretatik aurrera, plan hori garatu, kudeatu eta betearazteko prozedura 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legean eta hura garatzeko onesten den erregelamenduan ezarritakoa izanen da”

Zioak: Aukera ematea eztabaidarako Legebiltzarrean, kontrol parlamentarioa handiagoa izan dadin.

11. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko izenburua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“2. artikulua. Lege honetan 2007 eta 2008ko aurrekontualdietarako hitzarturiko gastua adinakoa den zenbateko berezi baten kargurako ekarpena. 2006. urterako, toki enteen partaidetza funtsean 2005-2006 ekitaldietarako dauden ekarpenak.”

Zioak: Behar bereziei eta larrialdi egoerei erantzuteko plan berezia abian jartzea ezin da ohiko konpromisoei esleitutako diruaren kargura izan.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu guztiaren ordezkari honako testu hau jarrezko zuzenketa: "1. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua zuzenbide publikoko entitate bat da, nortasun juridiko berekia eta bere helburuak betetzeko gaitasuna dituena, eta aholkularitza-eginkizunak betetzen ditu gizarte, ekonomia eta lan arloetan.

2. Bere eginkizunak betetzean, Nafarroako Foru Komunitateko gainerako organo eta erakundeetako independentzia jardunen du.

3. Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidezko harremana izanen du Nafarroako Gobernuarekin."

Zioak: Definizioa zehatzagoa da; agerian uzten ditu bai bere autonomia bai gobernuarekin duen harremana.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona da testu berria:

2.1 artikulua. "Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak hogeita bederatzi kide izanen ditu, lehendakaria barne"

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu kontseilukide-kopurua bakoitia izatea, horrela mugatu egiten baita berdinketak izateko aukera.

3. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

"1. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua 35 kidek osatuko dute, haren lehendakaria barne. Kopuru hori handitu edo txikitu ahalko da, legegintzaldi bakoitzean dauden parlamentu-taldeetako kopuruaren arabera"

Zioak: Kopurua egokitzea parlamentu-ordezkaritzaren arabera.

4. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

2.1.a) artikulua "Lehen taldea osatuko dute kontseiluaren eskumenekoak diren arloetako zazpi adituk"

Zioak: Kontseilua Foru Komunitateko administrazioaren organo aholku-emailea izaki, administrazioak berak izendaturiko taldea osatu behar dute, gure iritziz, arloan adituak direnek, eta ez administrazioetakoak diren kideek.

5. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

2.1.d) artikulua "Laugarren taldean zortzi kide izanen dira: bi ordezkari gizarte ekonomiaren sektoreetakoak, ordezkari bat kontsumitzaileen eta era-

biltzaileen elkarteetakoak, bi ordezkari nekazari eta abeltzainen elkarteetakoak, ordezkari bat elkarte ekologistetakoa, ordezkari bat Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautatu beharrekoa eta ordezkari bat Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hautatua.”

Zioak: Lehen taldearen osaera aldatzearen ondorioz, toki esparruaren ordezkariak laugarren taldean sartu dugu.

6. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

2.2 artikulua. “Kontseiluan lehen taldeko ordezkariak diren kideak Nafarroako Gobernuak hautatuko ditu gizarte eta ekonomiaren arloan prestigio hedatua duten pertsonen artean.”

Zioak: Ekonomia eta Gizarte Kontseilua administrazioaren organo aholku-emailea baldin bada, gure iritziz zati bat osatu behar dute gizarte eta ekonomia arloetan prestigioa duten zenbait pertsonak, zeinei aholkua eskatuko baitzaie.

7. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko hirugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“3. Bigarren taldeko ordezkari diren kontseiluki-deak erakunde sindikalek hautatuko dituzte gure erkidegoan daukaten ordezkariak sindikalaren arabera, betiere ziurtatuz Nafarroako Foru Komunitatean gutxienez ere ordezkariaren % 10 duten sindikatuetako kide bat, gutxienez, bertan dela.”

Zioak: Sindikatuen ordezkariak hautatzean proportzioei eustea.

8. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“3. “Kontseiluan bigarren taldekoak diren kideak... kideen 100eko 5...”

Zioak: Apustu egin behar da Ekonomia eta Gizarte Kontseilua ahalik eta ordezkagaitasun eta aniztasun handienekoa izan dadin.

9. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“6. 2 bis, bigarren, hirugarren eta laugarren taldeen kasuan, titularrak adina ordezkari kide hautatuko dira.”

Zioak: Ordezkaritzaren aldaketak aintzat hartzea.

10. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatiako a) letran lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politikoaren ordezkari bana.”

Zioak: Ekonomia eta Gizarte Kontseilua bezalako organo aholku-emaile eta adostasun-girokoan, ez da onargarria kanpoan uztea Parlamentuko alderdiak eta, bereziki, oposizioa.

11. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 5. idatz-zatian f) letra berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

2.5.f) artikulua. “Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari dagokiona, bertako batzorde betearazleak.”

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

12. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluan 2. bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2 bis. Parlamentu-taldeetako kideek karguko jardunaldia amaituko dute eta haien ordezkariak beste”

batzuek hartuko dute kargua, legegintzaldiaren hasierarekin eta Parlamentuaren eraketarekin bat”

Zioak: Aldaketa aurreikustea legegintzaldien eta hauteskundeetan eskuraturiko ordezkariaren arabera.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari idatz-zati berri bat, zortzigarrena, eranstea.

2. artikulua “8. Bateriaezintasunak. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kide izatea bateraezina izanen da honako kargu hauek beteazekin:

a) Nafarroako Gobernuko lehendakariarena eta Nafarroako Gobernuko kideena.

b) Kongresuko diputatuena, senatariena eta Europako Parlamentuko kideena.

c) Foru parlamentariena. d) Toki korporazioetako kideena.”

Zioak: Proiektuaren testuak ez du inolako bateraezintasunik ezartzen.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. idatz-zatiari letra bat, h), gehitzeko zuzenketa.

4.1 artikulua “h) Gerora gertatutako bateraezintasuna.”

Zioak: Bateriaezintasunak ezartzearen ondorioz.

15. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4.bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“4 bis artikulua. Bateriaezintasunak.

1. Kontseilukide kargua bateraezina da esleituriko eginkizunak betetzea galarazten edo oztopenen duen edozein kargu edo jardueratan aritzearekin.

2. Bereziki, bateraezina izanen da honako kargu edo jardueretako edozeinetan aritzearekin:

a) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko lehendakari, lehendakariorde, kontseilari edo goi kargudun gisa.

b) Gorte Nagusietako, Nafarroako Foru Parlamentuko edo Europako Parlamentuko parlamentari gisa jardutearekin.”

Zioak: Ekonomia eta Gizarte Kontseilua administrazioaren organo aholku-emailea baldin bada, gure iritziz zati bat osatu behar dute gizarte eta ekonomia arloetan prestigioa duten zenbait pertsonak, zeinei aholkua eskatuko baitzaie, eta ez dauka zentzurik administrazioko goi-kargudunak kontseilukide izateak; izan ere, haiek beste bide batzuk dituzte kontsulta diezaiteten.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lehendakariordearen figura instituzionala sortzeko beharrik ez dago, eta jokabide burokratiko hutsa da hori.

17. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko e) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

e) Idazkaria.

– Definizio hori lege osoari aplikatzea.

Zioak: “Idazkari nagusia” espresioak egokiago dirudi ordezkari-eginkizunetarako kudeaketa-erantzukizunetarako baino. Logikoa ematen du, idazkari nagusia egotekotan, nagusi ez diren beste idazkari batzuk egoteak, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ez dago halakorik.

7. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikularen a) letrako lehen idatz-zatian kenketa egiteko zuzenketa. Honako testua kentzea proposatzen da:

“Nafarroako Gobernuaren ustez arlo horietarako garrantzizkoak badira.”

Zioak: Kontseiluak gizarte eta ekonomiaren edo lanaren arloko gaiak arautzen dituzten foru legeen zein aurreproiekturi buruzko irizpena emanen duen eta zeini buruz emanen ez duen erabakitze ahalmena ez uztea gobernuaren eskuetan.

19. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa. a.1 idatz-zatian, honako esaldi hau kentzea: “Nafarroako Gobernuaren ustez arlo horietarako garrantzizkoak badira.”

Zioak: Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak gaia-
ren ustezko garrantziaren arabera zein arlori buruz eman behar duen irizpena, horri buruzko erabakia ez uztea gobernuaren irizpidearen baitan.

20. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 2. idatz-zatian honako testua kentzeko proposamena:

“Bidaltzen den espedientean berariaz eta arrazoiak emanda agertzen bada irizpena presakoa dela, epea zazpi egunekoa izanen da.”

Zioak: Hain epe laburra ez da onargarria txosten bat emateko.

21. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko b) eta c) letrak aldatzeko zuzenketa. Hau da proposatzen den testua:

b) Txostenak edo azterlanak egitea, bere ekimenez edo Nafarroako Gobernuak edo Nafarroako Parlamentuak eskaturik, gizarte eta ekonomiaren edo lanaren arloko gaien inguruan, bai eta beste gai batzuen gainean ere, hala nola ekonomia, fiskalitatea, gizarte ongizatea, nekazaritza, abeltzaintza, merkataritza, hezkuntza, kultura, ikerketa, osasuna, kontsumoa, ingurumena, garraioak, komunikazioak, industria, etxebizitza, eskualdeen garapena, azpiegiturak, Europar Batasuna eta estatistika.

c) Urtero, Nafarroako gizarte, ekonomia eta lanaren arloko egoerari buruzko txostena prestatu eta Nafarroako Gobernuari igortzea, urteko lehen bi hilabeteetan, gero Nafarroako Parlamentuari bidaltzeko.

Zioak: Nafarroako Parlamentuari ahalmena ematea Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari txostenak eskatzeko, eta haren lan-eremua azpiegiturara hedatzea. Bestalde, urteko lehen bi urteak ezartzea gizarte, ekonomia eta lan arloko egoerari buruzko txostena egiteko, horrela ahalbidetzeko gobernuak eta parlamentuak eraginkortasunez hartzea erabakiak.

22. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikularen b) letran gehiketa egiteko zuzenketa. Honako testu azpimarratua eranstea proposatzen da:

“..bere ekimenez edo Nafarroako Gobernuak edo Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskaturik...”

Zioak: Nafarroako Parlamentuari ahalmena ematea Kontseiluari txostenak eskatu ahal izateko.

23. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7.1. artikuluan beste letra bat, f), gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

7.1.f) artikulua. “Lan batzordeak eratu eta desegitea eta haien eskumenak eta funtzionamenduraubidea zehaztea”

Zioak: Ez gaude ados lan batzordeak eratzeko eskumena soil-soilik lehendakariarena izatearekin. Zuzenagoa iruditzen zaigu, kontseiluan dauden jatorri ezberdinetako ordezkariak ikusirik, eskumena kontseiluko osoko bilkurarena izatea.

24. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko laugarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kalitatezko botoa salbuespen-egoeretarako utzi behar da.

8. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

25. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Honako hau esan beharrean: “kide guztien herenak eskatzen duenean ere egin ahalko da”, honako hau esan beharko du: “kide guztien laurdena ordezkatzeko duen kide-kopuruak eskatzen duenean ere egin ahalko da.”

Zioak: Muga zorrotzegia ezartzen zuen.

26. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 2. idatz-zatia ordezkatzeko zuzenketa. Hau da proposatzen den testua:

“2. Osoko bilkura lehen deialdian balio osoz eratu da kideen bi heren agertzen badira, eta bigarren deialdian, baldin eta, gutxienez ere, kideen erdiak gehi bat agertzen badira”

Zioak: Gobernuaren proiektuak ahalbidetzen du osoko bilkura eratzeko bere kideen edozein kopurarekin. Ez zaigu serioa iruditzen kontseilukideen erdiak baino gutxiagoren bilera bat haren osoko bilkura gisa hartu ahal izatea.

27. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Osoko bilkura lehen deialdian balio osoz eratu da kideen bi heren agertzen badira, lehendakaria edo legez haren ordezkaria dena barne. Bigarren deialdian beharrezkoa izanen da gutxienez ere kideen erdiak gehi bat agertzea, baina, betiere, beharrezkoa izanen da lehendakaria edo legez haren ordezkaria dena bertaratzea”

Zioak: Testu berriak erabakietarako ordezkari-tza-maila eta kideen eskubideak murrizten ditu.

28. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“3. Osoko bilkuraren erabakiak kontseilua osatzen duten taldeek aho batez hartuko dituzte.

Talde bakoitzaren jarrera talde horren kideek berriaz eginiko bozketan erabakiko da, eta horretarako, 2. eta 2 bis taldeen kasuan, haietako bakoitzaren ordezkagaitasun-ehunekoa aplikatuko da.”

Zioak: Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak Nafarroarentzat interesekoak diren gaietan txostenak emateko duen eginkizunean harturiko erabakiek izan behar dute bere osaeraren arabera, eta hartan parte hartzen duten eragile politiko, sozial eta ekonomiko guztien adostasunik handiena bilatzeaz gain, hartan dauden erakundeen ordezkagaitasuna errespetatu behar dute.

29. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“3. Osoko bilkuraren erabakiak bilkuran dauden kideen gehiengo osoz hartuko dira”

Zioak: Bermatzea erabakiak hartuko dituela kontseiluan dauden ordezkariak araberako gehiengo batek.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

30. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua (Lan batzordeak) ordezteko zuzenketa. Honako testua proposatzen da:

“1. Lan batzordeak azterketa-taldeak dira, osoko bilkuran ebatzi beharreko txostenak, proiektuak edo proposamenak egiten dituztenak.

2. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko osoko bilkurak zilegi izanen du lan batzordeak eratzea, iraunkorrak edo gai zehaztarakoak, egoki deritzen arloei buruzkoak.

3. Lan batzorde horien osaerak betiere errespetatu beharko du osoko bilkura osatzen duten taldeen arteko proportzionaltasunaren printzipioa.”

Zioak: Lan batzordeen zeregina, eraketa eta ordezkartza argitu eta zehaztu egiten da.

31. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

9.2 artikulua. “Lan batzorde guztiak izanen dute foru lege honetako 2.1 artikuluan aipaturiko lau taldeen ordezkartza. Betiere, bigarren taldearen ordezkartzan erakunde eta konfederazio sindikal guztiak hautaturiko pertsonak egonen dira.”

Zioak: Garrantzitsua iruditzen zaigu lan batzordeetan ordezkaturik egotea kontseilua osatzen duten talde guztiak, eta, bereziki, sindikatu guztiak. Gainera, eta 7. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat etortzearen, kontseiluko lehendakariaren eskumenen artetik kendu dugu batzorde horiek eratzea, osoko bilkurak eratuak izatekoak baitira.

32. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. Lehendakariaren eskumena da batzordeak eratzea, berak nahiz osoko bilkurak proposaturik. Batzorde horietan bermatuko da erakundeen ordezkari gisa bertan egotea eskatzen duten kide guztiak egonen direla.”

Zioak: Bermatzea ezen eratzen diren batzordeetan parte hartuko dutela hala nahi duten erakunde guztiak.

33. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Osoko bilkuraren erabaki baten bidez lan batzordeak eratu ahalko dira, iraunkorrak edo gai zehaztarakoak. Osoko bilkurak hautatuko ditu haien kideak, eta betiere errespetatuko da kontseiluan proportzionalki ordezkaturiko taldeak haietan egotea.”

Zioak: Lan batzordeak eratzea osoko bilkuraren eskumena izan behar du, eta ez soilik lehendakariarena.

34. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua 2. idatz-zatiaren amaieran gehiketa egiteko zuzenketa. Honako testu azpimarratua eranstea proposatzen da:

“eta haien osaera zehaztea, Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabaki loteslea hartu ondoren.”

Foru legeen aurreproiektuei buruzko txostenak egiten direnean, horiek egiteko organo eskuduna Kontseiluaren Osoko Bilkura izanen da.”

Zioak: Kontseiluko lehendakariaren borondate hutsari gehiegizko autonomia ematen zaio.

10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

35. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“10. artikulua

Kontseiluko lehendakaria Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez izendatuko da, kontseilukideen bi herenek proposaturik.”

Zioak: Karguaren izendapenerako gehiengo kualifikatua bermatzea, kontseilua osatzen duten kideen jatorriaren aniztasuna kontuan harturik.

11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

36. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: 8. artikuluko laugarren lerrokadari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

37. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluan (Lehendakariaren eginkizunak) gehiketa egiteko zuzenketa. h) letra berri bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“h) Nafarroako Parlamentuko batzorde eskuduan agertzea foru lege honetako 7. artikuluko c) letrak aipatzen duen urteroko txostenari buruzko azalpenak emateko, bai eta Nafarroako Parlamentuak horretarako eskaera egiten dionean ere, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren eskumenekoak diren gaiei buruz informatzeko.”

Zioak: Proiektuak adierazten du urteroko txosten hori Nafarroako Parlamentura igorriko dela. Logikoa iruditzen zaigu Kontseiluko lehendakaria izatea txosten hori Parlamentuan defendatu eta horri buruzko azalpenak emanen dituen.

12. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

38. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lehendakariordearen figura instituzionala sortzeko beharrik ez dago, eta jokabide burokratiko hutsa da hori.

39. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“1. Kontseiluak lehendakariorde bat izanen du, eta kontseilukideen bi herenek proposaturik hautatuko da.”

Zioak: Lehendakariordearen hautaketa ez da lehendakariaren ahalmena izanen, baizik eta kontseiluaren osoko bilkurarena.

14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

40. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“1. Idazkari nagusiak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko funtzionario legelaria izan behar du.”

Zioak: Figura hori gordetzea Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioentzat.

16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

41. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko bosgarren lerrokadan kenketa egiteko zuzenketa.

“Edo enplegatu” hitzak kentzea.

Testua honela geldituko litzateke:

“5. Idazkari nagusiak dagozkion eginkizun eta lanen araberako ordainsaria izanen du. Ordainsari hori bateragarria izanen da Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko funtzionario gisa dagokiokeenarekin.”

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

